

KANALAK

Gure zerbitzuko kanala bost fasetan banatzen da. Pertzeptzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoak. Lehenik eta behin, gure hartzaleei gure zerbitzua helarazteko hainbat iragarki sortuko ditugu, besteak beste kartelak herriko zein kanpoko kale eta komertziotan, telebistako iragarkiak... Baina horrez gain, garrantzitsuena izango den webgune bat osatuko dugu eta ondoren hainbat sare sozialetan partekatzeko aukera jarriko dugu, horrela behar dutenei jakitun bihurtzeko gure zerbitzua erabilgarri egongo dela. Webgunean bertan posta elektronikoa sortu eta txertatuko dugu edonork gurekin harremanetan jarri nahiko balu edota arazoren baten aurrean guri helaraztea ere errazagoa izateko.

Ondoren, gure produktua ebaluatua izango da. Horretarako gure bezeroak erabiliko ditugu. Hori lortzeko, sortuko dugun webgunean, iruzkinak jartzeko aukera egongo da, honela bezero bakoitzak bere iritzia idatzi dezake gure zerbitzuari buruz. Iruzkinak idazteko aukeraz gain, izarren bitartez bozkatzeko aukera egongo da, izar batek zerbitzu desegoki bat egin dela esan nahiko du eta bost izarrek zerbitzu paregabe eman zaiela esan nahiko du. Guzti honekin, gure enpresak hobetzeko dituen gauzak jakiteko aukera izango dugu eta horiei indarra eman gure enpresa hobetzeko. Gainera, gure enpresak eskainitako baloreak ahalik eta ondoen adierazten saiatuko gara, gure bezeroek produktu egokiena eta zerbitzu egokiena eduki dezaten.

Erosketa dela eta, webgunea osatu eta produktuak eskuratu ondoren, gure bezeroengana gerturatzeko pausua egingo dugu. Bezero bakoitzak behar duen produktu bakoitza eskatu behar du web orritik eta txartelaren bitartez momentuan bertan ordaindu beharko lukete, horrela zihurtatuz bezeroa fidagarria dela. Aldiz, gure enpresari zerbait gertatuz gero, dirua itzuliko zaiola jakinaraziko diegu, gertutasuna bermatu eta konfiantza transmititzeko.

Entregari dagokionez, gure produktuak bezeroengana iristeko beste pertsona bat kontratatuko genuke. Horretarako, bigarren eskuko kamioi bat erosiko dugu eta hori erabiliko dugu gure produktuak bezeroengana iritsi ahal izateko. 48-72h inguru beharko ditugu gure produktuak bezeroengana eramateko. Hala ere, hasiera batean behintzat, gure eskaintza mugatua izango da, hau da, Espainian soilik eskainiko da. Baina arrakasta handia izango balu, eremua handituko genuke inguruko hainbat lekutara eskainiz.

Amaitzeko, baldin eta salmentaren ondorengoan bezeroek arazoren bat balute, gurekin harremanetan jarri beharko dute arazo hauek konpondu daitezzen. Gure enpresak mezu hauek ahalik eta azkarren irakurtzen saiatuko gara eta horretarako posta elektronikoz iritsiko zaizkigu mezu hauek. Honela, gure enpresako kideak adi egongo gara gure bezeroenbategi arazoren bat izan badu gure produktuarekin. Honekin, bezeroarengan konfiantza eta komunikazioa hobetuko dugu.

Hau guztia ondorioztatuz, ikusi dugu gure zerbitzuaren kanala zuzena izango dela, izan ere, online zerbitzua eskaitzen dugulako eta "delivery" eskaintza dugunez, bitartekariak saihesten ditugulako. Hasieran beste dendeekin kontaktuan jarri eta ondoren gure aldetik bezeroei ahalik eta eskaitza hoberena ematen saiatuko gara.

Amaitzeko, kanal motak direla eta, gure komunikazio-kanal egokiena interneta izango da, zehazki webgunearen bitartez, horrela harremanetan jarri nahi izanez gero postaren bidez erraz komunikatzeko baliabidea emateko. Bestetik, saltzeko erabilitako kanala on-line denda izango da, zehazki luxuzko arroparen eskaintza ikusi ahal izateko erosiko dutenek. Eta azkenik, banaketa gure garraioaren bitartez egingo dugu bezeroengana heltzeko, bakoitzak nahi duen postara eramanez.